# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

# ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia | Iruña, 2012ko azaroaren 19a | 97. ZK.

**A U R K I B I D E A**

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

B SAILA:

**Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

E SAILA:

**Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du baliogabetu ditzan 2012ko urriaren 31n emandako jarraibideak, aldarrikapen politiko eta sozialei buruzko pankartak, afixak eta paskinak jartzeari buruzkoak. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurriak har ditzan gure erkidegoan nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren ekoizpena garatze aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren legegintzako aldaketak egin ditzan etxebizitza-utzarazpenak eta gehiegizko zorpetzea saihesteko. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Gobernu Zentrala, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten Iruñeko espetxe berriaren funtzionamenduari buruz. Socialistas de Navarra, Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza ekonomikorako berariazko deialdi bat egin dezan, genero indarkeriari aurre egitera bideratutako estrategia politikoak eta jarduketak diruz laguntze aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza-utzarazpen kasuetarako aholkularitza zerbitzua zabal dezan, prebentzio eta arreta plan integral baten bidez. Enrique Martín de Marcos jaunak aurkeztu du (12. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere konpromiso sendoa berresten du askatasunaren eta demokraziaren balioen defentsan, horiek inspiratu behar baitute Nafarroako Foru Komunitateko ordezkari publiko guztien lana eta ahalegina. Patxi Leuza García jaunak aurkeztu du (13. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013an baldintza beretan manten ditzan familientzako orientazio, bitartekaritza eta elkargune zerbitzuak. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak uko egiten dio, Nafarroako herriaren izenean, Franco jeneralak 411/1937 Dekretuaren bidez emandako San Fernandoren Gurutze Erramudunari. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du San Fernandoren Gurutze Erramuduna eman izana eta espresuki uko egiten dio. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentua premiatzen da lan mahai baterako deialdia egin dezan, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko Foru Legearen 51. artikulua aplikatze aldera. Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (19. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak jotzen du Madrilgo Gobernuak Nafarroan duen ordezkaritzaren beharrik ez dagoela gure erkidegoan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (20. or.).
—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da doako aholkularitza-zerbitzu bat sor dezan etxebizitza-utzarazpen egoeran dauden pertsonentzat. Mozioa erretiratzea (21. or.).

F SAILA:
**Galderak:**
—Galdera, jakiteko zein kontusailetatik kendu diren 2,11 milioi euro, “Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak” kontusailera bideratzeko, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (22. or.).
—Galdera, euskaltegi publikoetan eta herri ekimeneko euskaltegietan matrikulatutako ikasleei buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (23. or.).
—Galdera, bizitokia Nafarroan duten pertsonei ematen zaien osasun laguntzari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (23. or.).
—Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiak zenbait kirol instalaziotan “giltza eskura” prozeduraren bidez eginiko esleipenei buruz emandako epaien gainekoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (24. or.).
—Galdera, Espainiako Itzulia Nafarroara ekartzearen ondorioei buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (25. or.).
—Galdera, Espainiako Itzulia Nafarroan eta Nafarroako konkistaren V. mendeurrenaren gogorarazpena aldi berean izateari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (26. or.).
—Galdera, 2010-2014 bosturtekoan Estatuari eginiko diru-ekarpena kalkulatzeko metodologiari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (27. or.).
—Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entzunaldiak bertan behera uzteari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (27. or.).
—Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer eginkizun zituen 2007an Nafarroako Kutxako Auditoria Batzordeko kide gisa eta Kontrolerako Batzordeko lehendakari gisa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (28. or.).
—Galdera, Jesús Pejenauteren kapitalak zuritzeko ahaleginaren ikerketari Nafarroako Gobernuko lehendakariak eginiko ekarpenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (29. or.).
—Galdera, Pejenaute jaunak aldatutako 500 euroko billeteei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (30. or.).
—Galdera, Pejenaute jaunaren pisuaren salmentari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (31. or.).
—Galdera, Nafarroako Kutxako Kontrolerako Batzordeak eta Auditoria Batzordeak Pejenaute jaunaren jarduketen gainean hartutako erabakiei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (32. or.).
—Galdera, Nafarroako Kutxak Pejenaute jaunari buruz hartutako erabakien gainekoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (33. or.).

—Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko, UPNko eta Nafarroako Kutxako nork zuen Pejenaute jaunaren jarduketen berri, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (34. or.).
—Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer iritzi duen diru beltza zuritzeari eta Pejenaute jaunarekin zerikusia duten beste zenbait gairi buruz, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (35. or.).
—Galdera, jakiteko zenbat diru bideratu duten nafarrek % 0,7aren laukitxora 2012ko errenta aitorpenean, 2011ko ekitaldiari buruzkoan, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (36. or.).
—Galdera, kreditu-kontusail zabalgarrien erabilerari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (37. or.).
—Galdera, jakiteko zenbat diru bideratu duten nafarrek % 0,7aren laukitxora 2012ko errenta aitorpenean, 2011ko ekitaldiari buruzkoan, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (38. or.).
—Galdera, Moderna Fundazioari funts publikoak emateari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (39. or.).
—Galdera, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak bere sorreratik eginiko bilera eta jarduerei buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (39. or.).

**A saila:**
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

# Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzekoa.

*ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioa berrantolatzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2013ko urtarrilaren 15eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2012ko azaroaren 9ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**B saila:**
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

# Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikuluak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foruzaingoak polizia-kidego integral bat izan behar du, zerbitzua foru lurralde osoan eta herritar guztiei emanen diena. Halatan, uniformeak, bereizgarriek eta kredentzialek herritar guztien eskubideak errespetatu behar dituzte, eta Nafarroaren errealitate anitza kontuan hartu.

Hortaz, honako foru lege proposamen hau proposatzen diogu Legebiltzar honi:

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeko 11. artikuluaren aldaketa.

“11. artikulua. Uniformea, bereizgarriak, kredentzialak, agurrak eta ohoreak.

1. Nafarroako foruzainek uniformea jantziko dute zerbitzuan dauden bitartean. Organo eskudunak baimenduko du, zerbitzuak hala eskatzen duen kasuetan, Foruzaingoko kide edo unitate jakinek uniformea jantzi gabe betetzea beren eginkizunak. Betiere, beren identitate profesionala kreditutako dute.

2. Kontseilari eskudunaren foru agindu bidez emanen dira uniformeari, bereizgarriei, kredentzialei, agurrei eta ohoreei buruzko arauak, euskarari buruzko araudi indarduna errespetatuz. Halaber, polizia-egoitzetan, ibilgailuetan eta bitarteko ibiltarietan erabili beharreko bereizgarriak arautuko dira.”

**Xedapen indargabetzailea.**

Indarrik gabe gelditu dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapen bakarra.**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

**E saila:**
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du baliogabetu ditzan 2012ko urriaren 31n emandako jarraibideak, aldarrikapen politiko eta sozialei buruzko pankartak, afixak eta paskinak jartzeari buruzkoak.

*BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu baliogabetu ditzan 2012ko urriaren 31n emandako jarraibideak, aldarrikapen politiko eta sozialei buruzko pankartak, afixak eta paskinak jartzeari buruzkoak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**MOZIOAREN TESTUA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Parlamentu-talde honek jakin duenez, Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran erabaki du jarraibideak onestea, Administrazioaren eraikinetako fatxadetan nahiz barrenaldeetan ezin izan dadin jarri pankarta, afixa edo komunikaziorik.

Nafarroako Gobernuak ezin du mugatu murrizketa ekonomikoak eta eskubide murrizketak aplikatzen dizkien taldeen adierazpen askatasuna. Adierazpen askatasuna eskubide bat da, Nafarroako Gobernuak errespetatu beharrekoa. Gure ustez, oso larria da herritar guztien eta, kasu honetan, langile publikoen, adierazpen askatasuna murrizten saiatzea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du baliogabetu ditzan 2012ko urriaren 31n emandako jarraibideak, bidezko aldarrikapen politiko eta sozialei buruzko pankartak, afixak, paskinak eta bestelako mezuak jartzeari buruzkoak.

Iruñean, 2012ko urriaren 31n

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Maiorga Ramírez Erro

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurriak har ditzan gure erkidegoan nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren ekoizpena garatze aldera.

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu neurriak har ditzan gure erkidegoan nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren ekoizpena garatze aldera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Lehen sektorea gure errealitate sozial, kultural eta ekonomikoaren ezaugarri bat da Nafarroarentzat. Lehen sektorea bizitzeko modu bat eta populazioaren parte baten jarduera ekonomikoa izan da eta da, bai eta jarduera nagusia ere gure lurraldeko eskualde askotan. Lehen sektorearen barruan, eta sektoreari etorkizuna emanen dioten garapen-alternatiba berrien xerka, sektorearen parte garrantzitsu batek produktu ekologikoak ekoiztearen eta merkaturatzearen aldeko apustua egin du.

Kalitatearen eta gune espezializatu berrien aldeko apustua da, non balio erantsia funtsezkoa baita produktu horiei toki bat bilatzeko merkataritza-zirkuituen barruan. Produktu ekologikoen produkzioa eta merkaturatzea abagune eta alternatiba ekonomiko handia bilakatu dira gure abeltzain, nekazari eta merkatarientzat. Asko dira apustu hori egin dutenak eta sektore hori hazkunde etengabera eta etorkizunari begira itxaropen handikoa izatera eraman dutenak.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1 Nafarroako Parlamentuak uste du gure erkidegoan nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoko produkzioa garatzea etorkizunerako apustu estrategiko bat dela gure lehen sektorearentzat eta gure gizarte osoarentzat.

2 Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere esku dauden neurri guztiak har ditzan, laguntze aldera produkzio ekologikoaren sektorearen garapenera bideratutako ekimenak, bai eta produktu horien sustapenera, merkaturatzera eta kontsumora bideratutakoak ere.

Iruñean, 2012ko urriaren 31n

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren legegintzako aldaketak egin ditzan etxebizitza-utzarazpenak eta gehiegizko zorpetzea saihesteko.

*SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen baitu beharrezkoak diren legegintzako aldaketak egin ditzan etxebizitza-utzarazpenak eta gehiegizko zorpetzea saihesteko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren legegintzako aldaketak egin ditzan, etxebizitza-utzarazpenak eta etorkizuneko gehiegizko zorpetzea ekiditeko, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari premia hau helaraz diezaion eta, hori helburu, egin beharreko zuzemenak egin ditzan Espainiako Gobernuaren aitzinean.

Erantzun bat eman behar zaio gizartearen eskaera garrantzitsu bati, gure hipoteka sistemako indar-desoreka handia dela-eta, non zorduna baita alderik ahulena, bere gain hartzen dituena finantza-entitateek arriskuak zuhurtziagabeki hartu izanaren ondorioak. Desoreka horiek inpaktu handia eragiten dute gure produkzio- eta finantza-sisteman, eta batez ere eragiten dute familia askok beren hipotekak ordaindu ezin izatea, halako moduan non etxebizitza eskuratzerik gabe gelditzen baitira eta nabarmen baliogabetu den ondasun baten zamak hartu behar baitituzte beren gain; hartara, ikusten dute bere zorrak kitatu gabe jarraitzen duela hipoteka-exekuzio ostean.

Orain arte hartutako neurriak ez dira aski izan hipoteka-zordunen egoera konpontzeko edo, gutxienez ere, arintzeko. Hori horrela da, batetik, neurri oso partzialak hartu direlako; hau da, ez diotelako bere osotasunean heltzen hartzekodunaren eta zordunaren posizioen artean dagoen desorekari. Eta, bestetik, modu oso murriztailean definitu delako zein den bai zordunek bai haien fidatzaileek bizi behar duten bazterketa-atalasea, baldin eta 6/2012 Errege Lege Dekretuan ezarritako neurriei heldu nahi badiete; hortaz, oso murritza –ia testimoniala– da onuradunen kolektiboa, eta baliabide urriko kaltetuen parterik handienak ezin ditu neurri horiek baliatu.

Hartu behar diren neurriak gizarte-munta handikoak dira, zeren etxebizitza-utzarazpenak amai daitezela bilatzen baitute –400.000 familia baino gehiagori eragin diete utzarazpenek; hau da, 2007tik 2011ra bitarte formalizatutako hipoteken % 10i–, bai eta etxebizitza galdu aurreko azken aukera ordainean ematea izan dadila ere. Halaber, neurriak hartzen dira etorkizunean gehiegizko zorpetzea ekiditeko eta higiezinen burbuilak prebenitzeko, krisiaren bilakaerarekin batera agerian jarri diren arau-gehiegikeriak eta legezko tranpak zuzenduz.

Helburua da, hortaz, ustekabeko kaudimengabezia dologabearen ondoriozko arazoak konpontzea, arazoaren parte bat baizik konpontzen ez duen ordainean ematea onartzeko exijentziatik harago joanez –zorra konpontzen da, baina ez etxebizitzaren galera–, bai eta etorkizunean gehiegizko zorpetzea ekiditeko neurriak hartzea ere.

Parlamentu-talde honen iritziz, Estatuko bost arau aldatu behar dira: Hipotekei buruzko Legea, Prozedura Zibilaren Legea, Hipoteka Merkatua arautzen duen Legea, Kreditu-entitateen Diziplinari eta Esku-hartzeari buruzko Legea eta Mailegu Hipotekarioak subrogatzeari eta aldatzeari buruzko Legea; baita hipoteka kredituak ere.

Asmoa ez da ez-ordaintzearen edo arduragabekeriaren legeztatzea, ez; asmoa da sozietate edo merkatari batek jasotzen duen tratu bera ematea zorduna den pertsona naturalari, baldin

eta ustekabean heldu bada kaudimengabezia dolo gabera, gizarte bazterkeriara kondenatu gabe. Finean, asmoa da bere funtsezko balioa itzultzea gure zuzenbideari, lege-arauari; hau da, dauden gizarte-interesak modu bidezko, ekitatezko eta proportziozko moduan egituratzen saiatzea.

Zehazki, beharrezkoa da neurriak ezartzea, zordunaren eta hartzekodun hipotekarioaren posizioak orekatzeko, etxebizitzaren tasazioei, enkante-prozeduretako abusuei eta berandutze-interesei dagokienez; jardunbide egokien kodean jasotako bermeak handitzea, halako moduan non nahitaez bete beharrekoak izanen baitira laguntza publikoa jasotzen duten kreditu entitateentzat, eta neurriak aztertzea ondokoei begira: zorra ordaintzeko baldintzak berregitea, amortizatu gabeko kapitaleko kita eta ordainean ematea; auzibidetik kanpoko prozedura bat ezartzea, konkurtso-prozeduraren aurrekoa, pertsona naturalaren ustekabeko gehiegizko zorpetze dologabearen arazoa konpontzeko, eta ezartzea zordunaren etxebizitzaren gaineko exekuzio hipotekarioa abiarazteko ezintasuna, auzibidetik kanpoko prozedura nahiz hartzekodunen konkurtsoa gauzatzen diren bitartean, zor profesionalen babes-sistema hedatuz izaera hori (pertsonalei) ez dutenei, jada hartutakoak barne.

Proposatutako neurri guztiek etorkizuneko nahiz gaur egungo hipotekei eragin behar diete, salbu eta exekuzio-izapidean daudenei, ez da posible atzeraeraginez aplikatzea jada egin diren exekuzioei.

Hona hartu beharreko neurri esanguratsuenak:

i. Etxebizitzaren tasazioa. Asmoa da gertatu diren abusu-egoerak zuzentzea; izan ere, baimendu izan da mailegua emateko tasazio bat egitea, eta exekuzio hipotekarioaren unean, berriz, beste bat.

ii. Auzibidetik kanpoko prozedura, exekuzio hipotekariorako. Asmoa da eraginkortasun, azkartasun eta kostuen aurrezpen handiagoa lortzea, prozedura judizialaren aldean, hipotekatutako ondasunen auzibidetik kanpoko exekuzioa bultzatuz eta enkante bakarra ezarriz auzibidetik kanpoko salmentarako, eta ez soilik exekuzio hipotekario judizialean, zordunari soilik kalte egiten dioten atzerapenak ekidite aldera.

iii. Enkanteak. Enkanteen prozedurari buruzko arauak aldatu behar dira, halako moduan non eragozten baita ondasuna zenbateko txikiegian esleitzea baldin eta enkantea eman gabe gelditzen bada. Posturagileak daudenean, igo egiten dira, ondasuna esleitze aldera, ondasunen tasazio-balioaren gaineko ehunekoak, horiek gaizki merkatzea ekiditeko. Eragotzi egin behar da hirugarren bati lagatzea, salbu eta betearazlearen kasuan; eta kasu horretan, prezioaren aldearen parte bat jasotzeko eskubidea ezartzen da zordunarentzat, baldin eta enkantea errematatu zen zenbatekoa baino zenbateko handiagoan egiten bada lagapena.

iv. Berandutze interesak: Abusuzko praktikak zuzendu behar dira, mugak jarriz gehiegizko berandutze interesei, zeinak ezin izanen baitira gainditu hartzekodunaren eta zordunaren arteko itun espres baten bidez. Horren bidez orobat ekidin nahi da zorraren zenbateko osoaren gainean duten biderkadura-eragin azkar-azkarra, eta geldiarazi egin behar da berandutze interesen sortzapena prozedura gauzatzen den bitartean, ohiko etxebizitzaren gaineko exekuzioa baldin bada.

v. Gehiegizko zorpetzearen prebentziorako neurriak, zeina kreditu entitateek erraztu behar baitute kreditua sinatu aurretik, amortizazio epe luzeegiak ekidinez eta interes-tasen gehiegizko aldakortasuna mugatuz.

vi. 6/2012 Errege Lege Dekretuaren aldaketa taxutu behar da (jardunbide egokien kodea), onuradun gehiagorengana hedatze aldera bertan jasotako neurriak, zorra ordaintzeko baldintzak berregiteari, amortizatu gabeko kapitaleko kitari eta azken aukera gisa ordainean emateari buruzkoak.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du egin beharreko lege-aldaketak egin ditzan, etxebizitza-utzarazpenak eta etorkizuneko gehiegizko zorpetzea ekidite aldera. Hartara, mozio honen zioen azalpenean jasotako sei neurriak hartzeko egin beharreko izapideak eginen ditu, ondoko legeak aldatuz: Hipotekei buruzko Legea, Prozedura Zibilaren Legea, Hipoteka Merkatua arautzen duen Legea, Kreditu-entitateen Esku-hartzeari eta Diziplinari buruzko Legea eta Mailegu Hipotekarioak subrogatzeari eta aldatzeari buruzko Legea. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari eman diezaion aldaketak egiteko premia honen berri eta, horrenbestez, haren aurrean egin beharreko zuzemenak egin ditzan helburu hori lortzeko.

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

# Mozioa. Horren bidez, Gobernu Zentrala, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten Iruñeko espetxe berriaren funtzionamenduari buruz.

*SOCIALISTAS DE NAVARRA, NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Gobernu Zentrala, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira zenbait neurri har ditzaten Iruñeko espetxe berriaren funtzionamenduari buruz.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Iruñeko espetxe berria ireki eta funtzionatzen hasteak zenbait gorabehera ekarri ditu, ondorio negatiboak izaten ari direnak presoek beren eskubideak baliatzeari dagokionez; batez ere, behar adina langilerik ez egoteagatik.

Presoen egonaldi baldintzek okerrera egin dute: denbora gehiago ematen dute ziegetan, jarduera fisikoa egiteko aukera gutxiago dute, elikadura okerragoa da, araubide irekian dauden pertsonek zailtasunak dituzte lanera joateko, eta abar. Egoera hori konpondu beharra dago, ekidite aldera haien berreziketa eta errehabilitazio aukerak murriztu daitezen.

Nafarrak edo gure erkidegoan sustraiak dituztenak ez dira espetxean sartzen ari, tokirik ez egoteagatik, nahiz eta tokia egon badagoen ,gutxiegi erabilitakoa. Dagokien moduluko baldintza zorrotzak onartzen ez dituzten emakumeak beste norabait eraman behar dituzte.

Iruñeko Abokatuen Elkargoaren Espetxeetako Orientazio Juridikoko Zerbitzuak eragozpenak ditu bere lana presoentzako gutxieneko zorroztasun eta bermeekin egin ahal izateko, eta horren errua espetxe barruan giza baliabide nahikorik ez egoteari botatzen zaio.

Kondena betetzen ari diren pertsonek ezaugarri bereziak dituzte, eta zaurgarriagoak dira; hortaz, defentsa eta babes behar handiagoa dute. Beren kondena askatasunik ez edukitzea da, eta ezin da beste inolako zigor erantsirik egon, askatasuna galtzeaz gain. Izan ere, ehuneko handi batek gaixotasun mentalak ditu, eta espetxeak ezin die eskaini birgizarteratzeko alternatibarik; beste preso-kopuru handi batek drogamenpekotasun-arazoak ditu, eta espetxeak ez die horiei ere alternatibarik eskaintzen, eta beste zenbait atzerritarrak dira, beste kultura, erlijio eta gizarte batzuetakoak, eta horrek ere badu bere eragina espetxebizitzari begira.

Testuinguru horretan, Espetxeetako Orientazio Juridikoko Zerbitzuaren eginkizuna funtsezkoa da, presoek justizia eskuragarri eduki ahal izateaz eta haien eskubideak esparru orotan babesteaz arduratzen delako.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia premiatzen ditu beharrezkoak diren giza baliabideez eta baliabide materialez horni dezan Iruñeko espetxea, instalazioen erabilera optimizatzeko eta bere eginkizunak arrakasta-bermez garatu ahal izan ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia premiatzen ditu Espetxeetako Orientazio Juridikoko Zerbitzuko legelariei baimena eman diezaieten asteko bost egunetan guardiak egiteko, erantzun ahal izate aldera egungo eskariari nahiz espetxeak har ditzakeen preso guztiak bertan daudenean egonen denari.

3. Nafarroako Parlamentuak Gobernu Zentrala eta Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia premiatzen ditu Iruñeko espetxera ekar ditzan espetxe zaharra beteegia zegoela-eta bere garaian handik

eraman zituzten preso guztiak, eta abian jar ditzaten produkzio-tailerrak eta terapia-modulua.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Abokatuen Elkargoaren arteko egungo nahiz etorkizuneko hitzarmenetan kontuan har dezan legelari-kopurua areagotu beharra dagoela, espetxean preso daudenek gaur egun nahiz etorkizunean espetxeen arlo juridikoan izan ditzaketen beharrizanei erantzuteko.

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Foru parlamentariak: Roberto Jiménez Alli, Patxi Zabaleta Zabaleta, Bikendi Barea Aiestaran eta Marisa de Simón Caballero

---

## Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza ekonomikorako berariazko deialdi bat egin dezan, genero indarkeriari aurre egitera bideratutako estrategia politikoak eta jarduketak diruz laguntze aldera.

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita laguntza ekonomikorako berariazko deialdi bat egin dezan, genero indarkeriari aurre egitera bideratutako estrategia politikoak eta jarduketak diruz laguntze aldera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

### MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Generoko indarkeriari desagerrarazi arte aurre egitea da Nafarroako administrazio publikoko erakunde guztiek lortu beharreko erronketako bat. Parlamentua, Epailetza, Nafarroako Gobernua, udalak eta toki entitateak helburu horretan bat datoz, eta bakoitzak bere modura betetzen du. Halatan, 2010ean “Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan laguntza eta prebentzio-lana benetan koordinatzeko erakundeen arteko akordioa” sinatu zen.

Egin beharreko lanak jarduketa-esparru ugari hartzen ditu; esaterako, prebentzioa, neurri judizialak, tratu txarrak jaso dituzten emakumeentzako laguntza, aholkularitza juridikoa, lagun-egite psikologikoa, indarkeria zuzenean nahiz zeharka pairatu duten adingabeentzako laguntza, eta abar.

Hartara, erakundeen arteko lankidetzaz gain, beharrezkoak dira, halaber, bestelako elkarte partikularrekiko lankidetza eta koordinazioa, problematika horrek ukituta edo problematika hori dela-eta kontzientziatuta egoteagatik lan egiten dutenak era guztietako laguntza boluntarioa ematen kasu askori, erakunde publikoek egiten duten lanaren osagarri.

Halere, eta egindako ahaleginak gorabehera, Nafarroan azken urteotan pairatzen ari garen egoera ekonomiko eta sozialaren okerragotzeak berekin ekarri du generoko indarkeria kasuek gora egitea; izan ere, problematika hori areagotu egiten da krisi garaietan, gizarte-problematika guztiekin oro har gertatzen den moduan. Hortaz, ahalegin bat egiteko unea da, bai koordinazioari bai ekarpen ekonomikoari dagokienez, baldin eta gure jarduketak eraginkorrak izatea nahi badugu. Hori dela-eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntza ekonomikoa emateko deialdi berariazkoa egin dezan, Gizarte Politiketako Departamentuaren eta Nafarroako Berdintasunerako eta Familiarako Institutuaren bitartez, diruz

laguntze aldera generoko indarkeriari bere adierazpide guztietan aurre egitera bideratutako estrategia politikoak eta jarduketak.

Deialdi horrek prebentzio politikak, generoko indarkeriaren biktimentzako laguntza juridikoa eta psikologikoa, biktimei lagun egitea eta abar barne hartuko lituzke, bai zuzenean kaltetutako pertsonei, bai indarkeria mota hori zuzenean nahiz zeharka pairatu duten adingabeentzat.

Deialdia toki entitateentzat nahiz gizarte-jarduketako esparru horretan lan egiten duten elkarte partikularrei zuzenduko zaie.

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

---

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza-utzarazpen kasuetarako aholkularitza zerbitzua zabal dezan, prebentzio eta arreta plan integral baten bidez.

*ENRIQUE MARTÍN DE MARCOS JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Enrique Martín de Marcos jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita etxebizitza-utzarazpen kasuetarako aholkularitza zerbitzua zabal dezan, prebentzio eta arreta plan integral baten bidez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Enrique Martín de Marcos jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza-utzarazpen kasuetarako aholkularitza zerbitzua zabal dezan, prebentzio eta arreta plan integral baten bidez.

Espainian etxebizitza-utzarazpenen kopurua azken hilabeteotan igo izanak eragin duen egoera sozial larriak, zeinak Nafarroari ere eragiten baitio, beharrezkoa egiten du entitate publikoek konpromiso orokor bat hartzea eta neurriak aplikatzea.

Lehen urratsak egin dira jada. Nazioan,etxebizitza-utzarazpenen aurkako neurriei buruzko errege dekretu bat onetsita, iragan martxoaren 9an. Errege dekretu horrekin batera, Espainiako Gobernuak Jardunbide Egokien Kodea taxutu zuen, zeinarekin bat egin baitute finantza entitate gehienek. Kode horrek jasotzen du egoera jakin batzuetan ordainean ematea aplikatzea.

Autonomia erkidegoetan jadanik badaude aholku emateko bulegoak, besteak beste Andaluzian, Gaztela eta Leonen, Katalunian eta Euskadin.

Toki esparruari dagokionez, Iruñeko Udalak iragan apirilean iragarri zuen abian jarriko zuela zerbitzu hori, Abokatuen Elkargoarekin lankidetzan, eta zerbitzua irailean jarri zen abian.

PPk mozio bat sartu zuen Parlamentuko erregistroan irailaren 18an, zeinaren bidez eskatzen baitzuen erkidego osora hedatzea etxebizitza-utzarazpenen arloko doako aholkularitza-zerbitzua emate aldera Iruñean abian jarritako zerbitzua. Mozioak azpimarratzen zuenez, diziplina anitzeko zerbitzu bat taxutu beharra dago, kontsumo, etxebizitza eta justizia arloen bidez, kaltetutako herritar guztien eskura egonen dena.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak urriaren 24an iragarri zuen etxebizitza-utzarazpenak murrizteko doako zerbitzu bat sortuko duela. Zerbitzu hori, halere, kontsumo arloari mugatuta dago, eta beharrezkoa egiten du finantza entitateen bitartekotza-lana.

Publikoki ezagutu diren datuek diotenez, Nafarroan laukoiztu egin dira, 2007tik hona, utzarazpen-prozedurak, eta 2012an 685 kasu baino

gehiago gertatu dira jada, halako moduan non gure erkidegoan batez beste bi utzarazpen egiten baitira egunero.

Prozesu horietako problematikak, zeinak sarritan egoera familiar eta sozial larriak eragiten baititu, beharrezkoa egiten du ikuspegi integral batetik jorratzea utzarazpen-prozesuak, prebentzio neurriak ahantzi gabe.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Etxebizitza-utzarazpenen gaineko aholkua emateko zerbitzua, jada badagoena, hedatzera, pertsonentzako eta familientzako laguntza eta prebentzio plan integral baten bidez.

2. Nafarroan dauden finantza entitateekin hitzarmen bat sinatzera, plan horri atxikitzeko.

3. Nafarroan etxebizitza-utzarazpeneko prozesu bat aplikatu zaien etxebizitzen errolda bat egitera.

4. Plan horretan ondokoak jasotzera:

A. Etxebizitza-utzarazpeneko prozesu bat dela medio gizarte bazterketa pairatzeko arrisku larrian dauden pertsonek eta familiek etxebizitza publiko bat eskuratzea.

B. Zerbitzuan artatutako pertsonei lan-bitartekotza eskaintzea, halakorik behar baldin badute, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez.

C. Etxebizitza-utzarazpenen aurkako laguntza zerbitzuak informazioa ematea 012 telefono zenbakiaren bidez.

D. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekiko hitzarmen bat, toki entitateetako langileek etxebizitza-utzarazpenen arloko oinarrizko prestakuntza-ikastaroak egiteko.

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Enrique Martín de Marcos

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere konpromiso sendoa berresten du askatasunaren eta demokraziaren balioen defentsan, horiek inspiratu behar baitute Nafarroako Foru Komunitateko ordezkari publiko guztien lana eta ahalegina.

*PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere konpromiso sendoa berresten baitu askatasunaren eta demokraziaren balioen defentsan, horiek inspiratu behar baitute Nafarroako Foru Komunitateko ordezkari publiko guztien lana eta ahalegina.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Leuza Garcíak, foru parlamentari den aldetik eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

1981ean, Nafarroako banderari eta armarriari buruzko arauak 1910ean ofizialki onetsi zen moduan utzi zuen Nafarroaren armarria; gaurko moduan, alegia. Arauak ez zuen ezertarako ere aipatzen San Fernandoren Gurutze Erramuduna, zeina Francok Nafarroaren armarrian jarri baitzuen 1937ko azaroaren 8an, 411 Dekretuaren bidez. Arau haren testua inolako aldaketarik gabe jaso zen Foruaren Hobekuntzan, zeina 1982an onetsi baitzen. Arauak ezarri zuen, hortaz, zein izanen ziren, demokrazian, Nafarroaren armarria eta bandera, eta ez zuen adierazten Nafarroak inplizituki uko egiten ziola bere armarrian gurutze erramuduna paratzeari.

Hori horrela balitz ere, eztabaida politikoa, Parlamentuaren bilkurak 1979an hasi zirenetik arau hori onetsi bitarte, horixe izan zen hain zuzen ere: gurutze erramuduna kentzea. 80ko hamarkadaren hasierako urte haietan jadanik zenbait argudio entzun ahal izan genituen; besteak beste, Nafarroak ez ziola gurutze erramudunari uko egin, berekin zeramala eta etorkizunean, apika, Foru Komunitatearen armarriak berriz ere erakutsiko zuela “bereizgarri” hori. Orain dela gutxi argudio horiek berak irakurri ahal izan dizkiogu Nafarroako ordezkari publiko bati.

Inork ere ez du zalantzan jartzen gurutze erramudunak esanahi frankista eta “gerrazibilista” duela; ez alde daudenek, ez aurka daudenek. Nazionalismo espainiar zaharminduaz harago –horri ez besteri zor zaio 1937an gurutze erramuduna eman izana–, garrantzitsua da agerian uztea indarkeriaren gorazarrearen erakusgarria dela.

Hori dela-eta, parlamentari honek ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak bere konpromiso sendoa berresten du askatasunaren eta demokraziaren balioen defentsan, horiek inspiratu behar baitute Nafarroako Foru Komunitateko ordezkari publiko guztien lana eta ahalegina.

2. Nafarroako Parlamentuak berresten du konbentzimendu osoz gaitzesten dituela 1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarra eta diktadura frankista.

3. Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du XXI. mendean bete-betean sartuta gauden honetan oraindik ere egotea nafarren ordezkari publikoak esanahi frankista eta “gerrazibilista” garbia eta aitortua duten sinboloak erreibindikatzen dituztenak. Hain zuzen ere, gaur egungo gure lanaren oinarri izan behar duten askatasun eta demokrazia horien berberen aurkakoak diren iraganeko balio, jarrera eta gertakariak berreskuratzen dituzten sinboloak.

4. Nafarroako Parlamentuak espresuki eta esplizituki uko egiten dio gurutze erramudunari, bere armarrian jartzeari dagokionez ez ezik, Nafarroak kondekorazio hori edukitzeari berari dagokionez ere.

5. Kasuko organismo guztiei helaraziko zaie Nafarroak gurutze erramudunari uko egitearen jakinarazpena, eta Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren ekintza guztiak sustatzera, uko hori behin betikoa eta egiazkoa izan dadin ahal den azkarren.

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013an baldintza beretan manten ditzan familientzako orientazio, bitartekaritza eta elkargune zerbitzuak.

*IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2013an baldintza beretan manten ditzan familientzako orientazio, bitartekaritza eta elkargune zerbitzuak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013an baldintza beretan manten ditzan familientzako orientazio, bitartekaritza eta elkargune zerbitzuak.

Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko Familia Atalean kudeatzen dira gatazkan edo zailtasunean bizi diren familiei laguntzeko zenbait baliabide:

– Familientzako Terapia-Orientazio Zerbitzua

– Familia Bitartekaritzako Zerbitzua

– Familientzako Elkarguneak

Foru Komunitateko herritar guztientzako zerbitzu publiko eta doakoak dira, gizarte zerbitzu espezializatu gisa taxutzen direnak, eta Gizarte Politiketako Departamentuaren zerbitzuen zorroan sartzen dira.

Familia Bitartekaritzako Zerbitzua 2002an sortu zen, eta Familientzako Orientazio Zerbitzua, berriz, 2005ean.

2009an, lanaldi osoan jarduten ziren lau orientatzaile-terapeutak eta lanaldi erdian jarduten zen batek osatzen zuten Familientzako Terapia-Orientazio Zerbitzuaz arduratzen zen ekipoa.

Bitartekaritzako Zerbitzurako ekipoa, berriz, lanaldi osoan jarduten diren hiru bitartekarik eta lanaldi erdian jarduten den batek osatzen zuten.

2011n, eskaria nabarmen igotzean, entitatearekiko kontratua zabaldu zen; halatan, ekipoa osatzen zuten sei orientatzaile-terapeutak, lau bitartekarik eta lanaldi erdiko bitartekari batek. Berritasun gisa, teraupeta horietako batek Tuteran ematen zuen zerbitzua etengabe.

2009an, Familientzako Terapia-Orientazio, Prestakuntza eta Bitartekaritza Zerbitzuaren kostua 331.212 eurokoa izan zen, BEZa barne. 2012an, zerbitzua zabaltzearekin, kostua 422.000 eurokoa da, BEZa barne.

Nafarroako Foru Komunitatean bizi eta zailtasunak dituzten familiei, hemezortzi urtetik beherako seme-alabak dituztenei, zuzenduta dago Familientzako Orientazio Zerbitzua.

Mistoa da zerbitzuen kudeaketa. Familia Atalean hiru teknikarik lan egiten dute –bi gizarte langile eta psikologo bat–; haiek jasotzen dute eskaria, bai erabiltzaileena bai sare publikoetako bideratzen-entitateena, eta etengabe daude koordinatuta zerbitzua kudeatzen duen enpresako profesional espezializatuekin.

Nafarroako Foru Komunitatean bizi eta gatazka-egoeretan dauden familiei zuzenduta dago Familientzako Bitartekaritza Zerbitzua.

2011ko jardueren oroitidazkitik nabarmendu behar da Familientzako Orientazio Zerbitzua 2005ean 90 familia artatzetik 2011n 421 familia artatzera igaro dela. Familientzako Bitartekaritza Zerbitzuari dagokionez, 2004an 58 kasu artatzetik 2011n 191 kasu artatzera igaro da.

2012an zehar, bai Orientazio Zerbitzuan, bai Bitartekaritza Zerbitzuan, eskariak gora egiten jarraitu du, 2011ko aldi berarekin konparatuta. Krisi ekonomikoa izan daiteke familien gatazka-tasan eragina duten aldagaietako bat; hartara, inoiz baino garrantzitsuagoa da baliabide horiei eustea, hain dira-eta sozialki errentagarriak, bai eta nahiko edo oso asebetegarriak ere, erabiltzaileentzat nahiz oinarrizko laguntzako sare publikoetako profesionalentzat.

Familientzako Elkargune Zerbitzua gizarte-zerbitzu espezializatu, unibertsal eta doako gisa definitzen da; profesionalen diziplina anitzeko ekipo batek darama zerbitzua, eta bere onuradunei gune neutral bat eskaintzen die bitarte baterako, adingabeei ziurtatze aldera beren gurasoekin edo familiartekoekin komunikatzeko eta bisitatzeko oinarrizko eskubidea, segurtasun fisikoa, psikikoa eta morala bermatzen duen esparru batean.

Nabarmendu beharra dago familiaren eta genero indarkeriaren arloetako eskumena duten epaitegiek eta Adopzioaren eta Familia-harreraren Atalak bideratutako kasuak direla.

Familientzako Elkarguneen esku-hartzea bitarte baterakoa da; bisiten araubidea normalizatzera bideratuta dago, harik eta baliabide horren premia eragin duten inguruabarrak desagertu arte eta/edo bi gurasoek beren guraso-eginbeharrak onartzen dituzten arte, beren seme-alabekin komunikatzeko eta/edo egoteko araubideari buruzko akordioak betetzeari dagokionez.

Eskariari dagokionez, nabarmendu beharra dago 2002an 77 kasu artatzetik 2011n 223 artatzera igaro direla.

Orain dela gutxi jakin dugu Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak erabaki duela bitartekaritza eta orientazio zerbitzuetan kasu berririk ez hartzea, harik eta zerbitzu horiek lehiaketa publiko bidez esleitu arte, zeina, beldur gara, ez baita erabilgarri izanen urtarrilaren 1erako, epeak mugatuak direlako eta Departamentuak asmoa duelako "doitzeko" eta nolabaiteko koordainketa ezartzea aztertzeko. Halaber, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko zuzendariak iragarri du % 18 murriztuko dela Familientzako Elkarguneentzako aurrekontua.

Ikusita eskaria, jaitsi ez ezik, igotzen ere ari dela, egin dezakegun gutxienekoa da ematen diren zerbitzuak kalitate-baldintza beretan ematen jarraitzea, langileei, ordutegiei, zerbitzua emateko lekuei eta abarrei dagokienez, baldin eta horiek eskariaren arabera gehitzeko modurik ez badago.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea atzera bota dezan Familientzako Orientazio eta Bitartekaritza Zerbitzuetan kasu berririk ez hartzeko erabakia, eta dagoen eskari osoari erantzun diezaion.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea ziurta dezan Familientzako Orientazio eta Bitartekaritza Zerbitzuetan eta Familientzako Elkarguneetan 2012ko baldintza beretan emanen dela zerbitzua 2013an, ratio berak mantenduz langileei, ordutegiei, zerbitzua emateko lekuei eta, oro har, horien kalitateari dagokienez, eta koordainketako formula oro baztertuz.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak uko egiten dio, Nafarroako herriaren izenean, Franco jeneralak 411/1937 Dekretuaren bidez emandako San Fernandoren Gurutze Erramudunari.

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak uko egiten baitio, Nafarroako herriaren izenean, Franco jeneralak 411/1937 Dekretuaren bidez emandako San Fernandoren Gurutze Erramudunari.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

1937ko azaroaren 4an, Franko jeneralak, zeina Errepublikaren legezkotasun demokratiko eta konstituzionalaren aurka altxatutako militarren ageriko burua baitzen orduan, San Fernandoren Gurutze Erramuduna eman zion Nafarroari. Gurutzea emate hori arrazoi beliko hutsei zor zitzaien, Nafarroak Franco jeneralaren araubide diktatorial jaioberria babesteagatik, egitate eztabaidaezin bat ahantzita; alegia, Nafarroa ez zela monolitikoa politikaren eta ideologiaren ikuspuntutik, eta bere baitan ere milaka hildako eragin zituen gerra bat izan zela, eta hildako haien memoria oraindik ez baita osotara berrezarri. Hildako haiek gure lurraldeko ezpondetan eta eremuetan barreiatuta egotea da, hain zuzen ere, amnesia interesatu eta selektibo baten salaketarik erabatekoena, biktima horiek guztiak historiaren lanbroan zokoratzea bilatzen delako. Gurutzea emate hura, hortaz, laidogarria da Nafarroako orduko eta gaurko gizartearen parte batentzat, eta beharrezkoa den berradiskidetzerako beste oztopo bat da.

Nafarroako Parlamentuak bere garaian jada erabaki zuen sinbolo hori Nafarroaren armarritik kentzea, baina gurutzearen emate-egintzak hor dirau, 411/1937 Dekretua ez baita formalki indargabetu. Nafarroako ordezkaritza-erakundeek ere –zehazki, Legebiltzar honek– ez dute horri buruz ezer adierazi. Berradiskidetzea, justizia demokratikoa eta biktimen erreparazioa helburu, bidezkoa da, beraz, Nafarroako Parlamentuak adierazpen espresa egin dezan, bai kondekorazio hori eman izanari buruz, bai gurutzea emateko dekretuaren indarraldiari buruz.

Adierazpen horrek ez dauka zerikusirik gurutzearekin berarekin edo haren esanahi militarrarekin, baizik eta diktadore batek hari dagokionez egindako erabilera interesatu, bidegabe eta are ez-zilegiarekin, ez baita ahantzi behar 1937ko azaroan indarrean zirauela Errepublikaren legeriak, zeinak lehendik indargabetu baitzuen San Fernandoren Gurutze Erramudunaren araubidea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak uko egiten dio, Nafarroako herriaren izenean, Franco jeneralak 411/1937 Dekretuaren bidez emandako San Fernandoren Gurutze Erramudunari.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du 411/1937 Dekretua indargabetu dezan, hala eskatzen dutelako oroimen historikoak eta diktaduraren biktimen erreparazio zuzenak.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du San Fernandoren Gurutze Erramuduna eman izana eta espresuki uko egiten dio.

*BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzesten baitu San Fernandoren Gurutze Erramuduna eman izana eta espresuki uko egiten baitio.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

2012ko azaroaren 8an, zehazki 75 urte betetzen dira Francisco Franco jeneralak, , 411. dekretuaren bidez, Nafarroari San Fernandoren Gurutze Erramuduna eman zionetik.

Kondekorazio hori justifikatu zen “Nafarroako herritarren zati batek erakutsitako adorearengatik eta ahaleginarengatik”, armadak, Nafarroako oligarkiak eta Eliza Katolikoaren hierarkiak sustatutako estatu-kolpean.

Ez da ahaztu behar Errepublikaren legezkotasun demokratikoaren aurkako estatu-kolpea izan zela eta gerra krudela ekarri zuela Estatu osoan.

Gure lurretan, jakina den bezala, gerra-fronterik izan gabe ere, 3.500 pertsona baino gehiago erail ziren, eta askotan senideek ezin izan dituzte haien gorpuak berreskuratu.

Estatu-kolpeak heriotzazko diktadura beltza, samina eta askatasun gabezia inposatu zituen, bai eta erregimen faxista bat ere, zeinak erramua ematearekin bere burua betikotu nahi izan baitzuen nafar guztien oroimen kolektiboan.

75 urte iragan dira egun hartatik, eta Nafarroako gizarteak, bere aniztasunetik, gehiengoz defendatzen ditu askatasuna eta demokrazia, hain zuzen ere kolpe-egile haiek zapaldu nahi izan zituzten balioak, zeinak San Fernandoren Gurutze Erramuduna izenaz ezagutzen denak irudikatzen dituenen kontrakoak baitira.

Hori dela eta, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herritarren ordezkaritzaren organo goren gisa, sari militar horren errefusa erakutsi nahi du, eta berariaz uko egiten dio “San Fernandoren Gurutze Erramuduna” izenaz ezagutzen denari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari itzul diezazkion aipatutako kondekorazio militar horrekin batera emandako edonolako agiriak edo bestelako sinboloak ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua berriro ere premiatzen du gure erkidegoan egon litekeen edozein sinbolo frankista erretira dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

# Mozioa. Horren bidez, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentua premiatzen da lan mahai baterako deialdia egin dezan, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko Foru Legearen 51. artikulua aplikatze aldera.

*UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, NAFARROA BAI, NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentua premiatzen baita lan mahai baterako deialdia egin dezan, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko Foru Legearen 51. artikulua aplikatze aldera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

### MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legeko 51. artikuluak ezartzen du Nafarroako ehiza barrutietan zaintza sistema bat egon beharra dagoela. Bada, artikulu horren aplikazioa dela-eta hainbat moratoria onetsi dira.

Azken moratoriaren amaiera-data –2013ko urtarrilaren 31– hurbil dagoenez, presaz ekin behar zaio konponbideari, bermatze aldera Nafarroako barruti guztiak ikuskatzen, zaintzen eta kontrolatzen direla, bai ehiza babesteko, bai ehiza-espezieen aprobetxamendurako eta haien habitatak babesteko ere.

Nabarmenak dira barruti batetik bestera dauden aldeak, haien luze-zabalari eta titulartasunari dagokienez. Hori dela eta, egokia dirudi sistema bat ezartzea, zaintza-beharrak eta haien finantziazioa aztertzeko.

Bestalde, errentagarritasuna atera behar zaie “Nafarroako ehizazainen” izaera edukitzeko baldintzak lortzeko prozedurak arautze aldera Nafarroako Gobernuak garatu dituen ekintzei –hain zuzen ere, aipatutako legeak horri dagokionez ezartzen dituen eginkizunak garatzeko langileek eduki beharreko lanbide-gaitasuna bermatzeko ekintzei–.

Hori dela-eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioko Departamentua premiatzen du bi asteko epean lan-mahai baterako deia egin dezan –mahai horretan, izan ere, ordezkatuta egonen dira Ingurumeneko teknikariak, Seprona, Nafarroako Gobernuko oihanzainak, ehizazainen elkartea eta ehiztarien elkarteak–, egoera horri aurre egiteko eta Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko Foru Legeko 51. artikulua eraginkor egiteko konponbide bat bilatzeko.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Foru parlamentariak: Jerónimo Gómez Ortigosa, María del Carmen Ochoa Canela, Aitziber Sarasola Jaca, Txentxo Jiménez Hervás, Ana Beltrán Villalba eta Marisa de Simón Caballero

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak jotzen du Madrilgo Gobernuak Nafarroan duen ordezkaritzaren beharrik ez dagoela gure erkidegoan.

*NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak jotzen baitu Madrilgo Gobernuak Nafarroan duen ordezkaritzaren beharrik ez dagoela gure erkidegoan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkaritzak antzinako gobernu zibiletan ditu aurrekariak. Gobernu zibilak, izan ere, Estatuak Madrilgo politika zentralista jakin batzuk probintzietara eraman eta haietan aplikatzeko erabiltzen zituen tresnak dira.

Foruaren Hobekuntza onetsi zenetik hogeita hamar urte baino gehiago iragan diren arren eta Nafarroak Estatuarekin aldebiko harremanak dauzkan arren, eta eskumen berekiak araututa dauden arren eta Parlamentu hau haietaz une hartatik hona baliatu den arren, Estatuak bere egiturei eutsi die, Foruaren Hobekuntza onetsi aurretik zeuden bezalaxe.

Gaur egun, Ordezkaritza horren existentzia kontraesan bat da Autonomien Estatuaren eredu dezentralizaturako, Madrilek Nafarroari buruz gainbegiratze- eta mesfidantza-jarrera duela ematen du aditzera, eta Estatuak atsegin ez zaizkion erabakiak kontrolatu eta zuzentzeko daukan borondatea proiektatzen du.

Errealitate horrekin batera, behin eta berriz egiaztatzen ari gara nola Madrilgo Gobernutik, eta errege dekretu horren babesean, erabaki ekonomikoak inposatzen diren, oinarrizko gaiak balira bezala, eta nola hori ondorio sozial eta ekonomiko larriak ekartzen ari zaizkion Nafarroako gizarteari. Hori guztia, krisi ekonomikoaren arrazoi nagusiaren menpean eta gastu publikoa mehetuko duten doikuntza eta murrizketa ekonomikoen ezinbesteko premiaren menpean.

Ordezkaritza egotea justifikazio politikorik gabe uzten duen arrazoi bikoitz horren aurrean, eta jakinda gaur egun gastu guztiz justifikaezina dela, parlamentu-talde honek honako erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak jotzen du, aldebiko harremanen ikuspuntutik eta Nafarroako autogobernuaren eskumen-ahalmenaren eta eskubideen ikuspuntutik, ez dela beharrezkoa gure erkidegoan egotea Madrilgo Gobernuaren ordezkaritzarik.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du gure erkidegoan duen ordezkaritza ken dezan. Horrekin, harremanen eredua hobetzeaz gainera, hura irekita edukitzeak dakartzan beharrik gabeko gastuak gutxitzen lagunduko litzateke.

Iruñean, 2012ko azaroaren 8an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

# Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da doako aholkularitza-zerbitzu bat sor dezan etxebizitza-utzarazpen egoeran dauden pertsonentzat.

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Adieraztea jakinaren gainean dagoela Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari buruz. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen doako aholkularitza-zerbitzu bat sor zezan etxebizitza-utzarazpen egoeran dauden pertsonentzat, eta 2012ko irailaren 28ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, jakiteko zein kontusailetatik kendu diren 2,11 milioi euro, "Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak" kontusailera bideratzeko.

*SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zein kontusailetatik kendu diren 2,11 milioi euro, "Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak" kontusailera bideratzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

### GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Jakin dugunez, 2012ko iraileko aurrekontu-aldaketak baimentzen dituzten ebazpenen bidez –Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 50.3 artikulua betez egindakoak dira ebazpen horiek–, 2,11 milioi euro atera direla "Adinekoentzako zentroen kudeaketa", "Ezgaitasuna duten pertsonen zentroen kudeaketa" eta "Gaixotasun mentala dutenen zentroen kudeaketa" kontusailetatik "Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak" kontusailaren xedeetan erabiltzeko.

Xedea egiaz egokia izan daitekeela zalantzan jarri gabe, honako galdera egin nahi dugu:

Ez al zegoen beste kontusailik 2,11 milioi euro horiek ateratzeko?

Iruñean, 2012ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

## Galdera, euskaltegi publikoetan eta herri ekimeneko euskaltegietan matrikulatutako ikasleei buruzkoa.

*AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, euskaltegi publikoetan eta herri ekimeneko euskaltegietan matrikulatutako ikasleei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**GALDERAREN TESTUA**

Aitziber Sarasola Jacak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentaria denak, Legebiltzarraren Erregelamenduari jarraiki, ondoko ahozko galdera egin nahi du, Osoko Bilkuran Hezkuntza Kontseilari Jose Iribas jaunak erantzun dezan.

Euskaltegietan izena emateko epea amaitu da eta jada 2012-2013 ikasturterako ikasle kopuruak finkatuak dira.

– Zenbat ikasle matrikulatu dira euskaltegietan orotara? Zenbat izan dira euskaltegi publikoetan eta zenbat herri ekimeneko euskaltegietan? Datu hauek aintzat hartuta, ze balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak? Emaitzak onak edo txarrak dira?

– Aurrera begira, asmorik al du Nafarroako Gobernuak emaitzak hobeak izan daitezen?

Iruñean, 2012ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

---

## Galdera, bizitokia Nafarroan duten pertsonei ematen zaien osasun laguntzari buruzkoa.

*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, bizitokia Nafarroan duten pertsonei ematen zaien osasun laguntzari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako kontseilari Alli jaunari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Parlamentu honetako Gizarte Politiketako Batzordean, 2011ko azaroaren 7an, kontseilari jaunak gomendatu zidan bezala, honako galdera hau egiten diot:

Nafarroan bizitokia dugun pertsona guztiok tratu bera jasoko al dugu eta osasun arreta bera jasoko al dugu, guztiontzako zerbitzu-zorro beraren arabera?

Iruñean, 2012ko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

# Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiak zenbait kirol instalaziotan "giltza eskura" prozeduraren bidez eginiko esleipenei buruz emandako epaien gainekoa.

*NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiak zenbait kirol instalaziotan "giltza eskura" prozeduraren bidez eginiko esleipenei buruz emandako epaien gainekoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein neurri hartu ditu edo hartzea pentsatu du Gobernuak Nafarroako Auzitegi Nagusiak eman dituen epaiak direla eta, hezkuntza-instalazioetarako "giltza eskura" leloaz ezagutzen den prozeduraren bidezko esleipenei buruz?

Iruñean, 2012ko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

# Galdera, Espainiako Itzulia Nafarroara ekartzearen ondorioei buruzkoa.

*PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Itzulia Nafarroara ekartzearen ondorioei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## GALDERAREN TESTUA

Patxi Leuza Garcíak, foru parlamentaria den aldetik eta Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako kontseilari Iñigo Alli jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan den abuztuaren 6an, Gizarte Politiketako kontseilari ohi Javier Pejenautek prentsaurrekoan aurkeztu zuen Nafarroan abuztuaren 18an eta 19an egitekoak ziren Espainiako Itzuliko bi etapen karietara aurreikusitako jardueren programa. Prentsaurreko berean, kontseilari ohiak aitortu zuen Foru Gobernuak 990.000 euro gastatuko zituela, 2012ko eta 2013ko aurrekontuetan banatuak.

Ia milioi bat euro egiten duen gastu horri erantsi behar zaio UPNk ekitaldia antolatzeko, Iruñeko Udalaren diru-laguntza izendun gisa, gehitu zuen 194.000 euroko kopurua, bai eta erakunde horrek berak zizka-mizketan, loreetan eta kale-apainketan gastatutako 60.411 euroko kopurua ere.

Azaroaren 7an, kontseilari berri Iñigo Alli jaunak, Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politiketako Batzordean eginiko agerraldian, aitortu zuen "uztailaren 4an erabaki zuela Club Atlético Osasunari ematekoa zen laguntza geraraztea, "zeren eta, bere ustez, departamentuak lehentasun askoz ere handiagoak baitzeuzkan; esate baterako, babesik gabeko pertsonen eskubide sozialak bermatzea eta laguntza eta gizarte politika guztiak bideratzea premia handienean dauden pertsonek autonomia, garapena eta gizarteratzea lor dezaten erraztera".

Agerraldi horretan bertan, kontseilariak datu batzuk eskaini zituen, eta nabarmendu zuen Gobernuak 1.200 pertsona baino gehiagori laguntza eman diela Osasunari kendutako babesaren diruarekin. Zehazki, adierazi zuen hasiera batean Osasunari laguntza ematekoa zen eta gero desblokeatu zen kontusailen zenbatekoa, kontseilariak berak emandako informazioaren arabera, honela bideratu zela: 499.200 euro, gizarte enplegu babestuko programarako; 141.195 euro, prestaziorik gabeko langabetuei laguntza emateko; 400.000 euro baino gehiago, bizirauteko bitartekorik gabeko familia nafarrentzat eta pertsonek enplegua lor dezaten laguntzeko; 294.116 euro, ezgaitasuna duten pertsonentzako zentroen mantentze-lanetarako eta funtzionamendurako. Baliabide horiei esker, guztira 1.213 pertsona artatu ahal izan dira.

Kontuan izanda egungo krisi ekonomikoa 2008an abiatu zela eta, horrenbestez, egungo Gobernuak, aurrekoak bezala, lau urte izan dituela bere politika sozialak kalearen errealitateari egokitzeko eta bere lehentasunak antolatu eta zehazteko, eta, hala eta guztiz ere, gero eta nafar gehiago direla murrizketak, langabezia, etxegabetzeak eta elikagai-eskasia pairatu behar izaten dutenak, honako galdera egin nahi dut:

1. Azaldu al dezake Gobernuak zenbat pertsona geratu diren laguntzarik gabe uda honetan Espainiako Itzulia Foru Komunitatera ekartze aldera milioi bat euro inguru gastatzearen ondorioz?

2. Nork hartu zuen erabaki hori? Gobernuko zer pertsona zehatz da Espainiako Itzulia Nafarroara ekarri izanaren arduraduna?

Iruñean, 2012ko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

# Galdera, Espainiako Itzulia Nafarroan eta Nafarroako konkistaren V. mendeurrenaren gogorarazpena aldi berean izateari buruzkoa.

*PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Itzulia Nafarroan eta Nafarroako konkistaren V. mendeurrenaren gogorarazpena aldi berean izateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## GALDERAREN TESTUA

Patxi Leuza García jaunak, foru parlamentaria den aldetik eta Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilari José Luis Sánchez de Muniáin jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

1512ko uztailaren 21ean, Albako dukeak, hamar mila gizon baino gehiagoko armada baten agintari –esperientzia handiko militarrek zuzendutako armada zen, garai hartako armamentu aurreratuenarekin–, Nafarroako muga zeharkatu zuen Ziorditik, eta Nafarroaren I. Konkista abiatu zuen. Ondoren, 1516ko eta 1521eko erasoak etorriko ziren.

Zenbait egun geroago, Albako dukea Iruñeko harresien aurreraino iritsi zen, eta errenditzeko eskatu zuen. Tronpeta-joleak “Espainiako kapitain nagusi” gisa aurkeztu zuen dukea, “Espainiako Erregearen” izenean. Espainiako Erregea, hain zuzen, Aragoiko Fernando zen, zeina Nafarroan “Gezurtia” izenaz ere ezagutzen baitzen. Iruinsemeek dukearen mehatxuak entzun zituzten, esan baitzien errenditzen ez baziren hiria eraso eta bertako biztanleak zisma-zaleen gisara tratatuko zituela, “errukirik gabe, odolez eta suz”.

Aurretik azaldutakoa dela eta, parlamentari honek ondoko galdera egin nahi du:

1. Espainiako Itzulia Gobernu honek Konkistaren V. mendeurrena ospatzeko prestatutako arrandietako bat al zen?

2. Gustu onekoa iruditzen al zaizu bi datak bat etorraraztea?

3. Kontuan hartu al zuen ustez nafar guztiak ordezkatzen dituen Gobernuak, herritarren parte handi batentzat litekeena zela gustu onekoa ez izatea bi data horiek bat etorraraztea?

4. Sentitzen al du Nafarroako Gobernuak halako premia berezi bat nortasun-ezaugarri batzuk nabarmentzeko? Ez zuen, bada, Espainiako Itzulia aprobetxatuko hura Iruñean hastea eta Nafarroaren Konkistaren V. mendeurrena bat etorrarazteko?

Iruñean, 2012ko azaroaren 8an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

## Galdera, 2010-2014 bosturtekoan Estatuari eginiko diru-ekarpena kalkulatzeko metodologiari buruzkoa.

*AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, 2010-2014 bosturtekoan Estatuari eginiko diru-ekarpena kalkulatzeko metodologiari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**GALDERAREN TESTUA**

Aitziber Sarasola Jacak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

2010-2014 bost-urtekorako “Estatuari egiten zaion Ekarpena” kalkulatu ahal izateko metodologiari buruzko informazioa, baita metodologia bera ere.

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

---

## Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entzunaldiak bertan behera uzteari buruzkoa.

*AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren entzunaldiak bertan behera uzteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**GALDERAREN TESTUA**

Aitziber Sarasola Jacak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

• Zergatik utzi dira bertan behera Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin egiten ziren entzunaldiak?

• Zenbat kostatu ziren 2009-2010ean, 2010-2011n eta 2011-2012an entzunaldi horien antolaketa eta garraioak?

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

---

# Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer eginkizun zituen 2007an Nafarroako Kutxako Auditoria Batzordeko kide gisa eta Kontrolerako Batzordeko lehendakari gisa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer eginkizun zituen 2007an Nafarroako Kutxako Auditoria Batzordeko kide gisa eta Kontrolerako Batzordeko lehendakari gisa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## GALDERAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera egin dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari, idatziz erantzun diezaion:

2005eko maiatzaren 19an gaiari buruz eginiko txosten batean, Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoek ondorioztatu zuten Legebiltzar honetako parlamentariok eskubide osoa geneukala Gobernuko kideek Nafarroako Aurrezki Kutxan zeukaten jarduerari buruzko informazioa eskatzeko eta erantzunak jasotzeko.

Halaber, Gobernuko kontseilari eta eledun Sánchez de Muniáin jaunak, Osoko Bilkura batean soilik hiru egun lehenago eginiko Nafarroako Aurrezki Kutxari buruzko gaurkotasun handiko galdera bati erantzuten ari zitzaiola, aitortu zuen ez zela arazorik izanen Nafarroako Aurrezki Kutxaren jarduerari buruzko informazioa jasotzeko, baldin eta Gobernuak eskatzen bazion entitateari informazio hori.

Hori guztia dela eta, Gobernuko kide ohi Pejenaute jauna dimisioa aurkeztera eraman zuen jarduerari dagokionez, zehazki Nafarroako Aurrezki Kutxako organigraman betetzen zuen egitekoari buruz ari garela, parlamentari honek honako galderen erantzuna jakin nahi du:

• Nafarroako Kutxako Kontrol Batzordeko lehendakari gisa, 2007an, zein ziren zure egitekoak?

• Auditoria Batzordeko kide gisa, 2007an, zein ziren zure egitekoak?

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Galdera, Jesús Pejenauteren kapitalak zuritzeko ahaleginaren ikerketari Nafarroako Gobernuko lehendakariak eginiko ekarpenari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Jesús Pejenauteren kapitalak zuritzeko ahaleginaren ikerketari Nafarroako Gobernuko lehendakariak eginiko ekarpenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## GALDERAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera egin dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari, idatziz erantzun diezaion:

2005eko maiatzaren 19an gaiari buruz eginiko txosten batean, Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoek ondorioztatu zuten Legebiltzar honetako parlamentariok eskubide osoa geneukala Gobernuko kideek Nafarroako Aurrezki Kutxan zeukaten jarduerari buruzko informazioa eskatzeko eta erantzunak jasotzeko.

Halaber, Gobernuko kontseilari eta eledun Sánchez de Muniáin jaunak, Osoko Bilkura batean soilik hiru egun lehenago eginiko Nafarroako Aurrezki Kutxari buruzko gaurkotasun handiko galdera bati erantzuten ari zitzaiola, aitortu zuen ez zela arazorik izanen Nafarroako Aurrezki Kutxaren jarduerari buruzko informazioa jasotzeko, baldin eta Gobernuak eskatzen bazion entitateari informazio hori.

Hori guztia dela eta, Gobernuko kide ohi Pejenaute jauna dimisioa aurkeztera eraman zuen jarduerari dagokionez, zehazki kasu honen ikerketan izandako eginkizunari buruz ari garela, parlamentari honek honako galderen erantzuna jakin nahi du:

• Zein ekarpen egin zenuen Jesús Pejenautek kapitala zuritzeko egindako ahaleginari buruzko ikerketan?

• Zenbat aldiz bildu zen Kontrol Batzordea 2006an, 2007an eta 2008an?

• Nafarroako Gobernuko lehendakariak adierazi zuen kasu hau Auditoria Batzordearen ardurakoa zela. Zenbat aldiz bildu zen batzorde hori 2006an, 2007an eta 2008an?

• Bilera horietatik zeinetan aztertu zen Pejenaute jaunaren ustezko diru-zuritze ahalegina? Bilera horren akta eskatzen dugu.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Galdera, Pejenaute jaunak aldatutako 500 euroko billeteei buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Pejenaute jaunak aldatutako 500 euroko billeteei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## GALDERAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera egin dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari, idatziz erantzun diezaion:

2005eko maiatzaren 19an gaiari buruz eginiko txosten batean, Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoek ondorioztatu zuten Legebiltzar honetako parlamentariok eskubide osoa geneukala Gobernuko kideek Nafarroako Aurrezki Kutxan zeukaten jarduerari buruzko informazioa eskatzeko eta erantzunak jasotzeko.

Halaber, Gobernuko kontseilari eta eledun Sánchez de Muniáin jaunak, Osoko Bilkura batean soilik hiru egun lehenago eginiko Nafarroako Aurrezki Kutxari buruzko gaurkotasun handiko galdera bati erantzuten ari zitzaiola, aitortu zuen ez zela arazorik izanen Nafarroako Aurrezki Kutxaren jarduerari buruzko informazioa jasotzeko, baldin eta Gobernuak eskatzen bazion entitateari informazio hori.

Hori guztia dela eta, Gobernuko kide ohi Pejenaute jauna dimisioa aurkeztera eraman zuen jarduerari dagokionez, zehazki diru kopuruei buruz ari garela, parlamentari honek honako galderen erantzuna jakin nahi du:

• 500 euroko zenbat billete aldatu zitzaizkion, azkenean, Pejenaute jaunari?

• Pejenaute jaunak zenbat diru aldatuko zuela iragarri zuen?

• ¿Zenbat diru justifikatu zion Nafarroako Aurrezki Kutxari Bartzelonan zeukan pisuaren salmenta zela eta?

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Galdera, Pejenaute jaunaren pisuaren salmentari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Pejenaute jaunaren pisuaren salmentari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## GALDERAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera egin dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari, idatziz erantzun diezaion:

2005eko maiatzaren 19an gaiari buruz eginiko txosten batean, Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoek ondorioztatu zuten Legebiltzar honetako parlamentariok eskubide osoa geneukala Gobernuko kideek Nafarroako Aurrezki Kutxan zeukaten jarduerari buruzko informazioa eskatzeko eta erantzunak jasotzeko.

Halaber, Gobernuko kontseilari eta eledun Sánchez de Muniáin jaunak, Osoko Bilkura batean soilik hiru egun lehenago eginiko Nafarroako Aurrezki Kutxari buruzko gaurkotasun handiko galdera bati erantzuten ari zitzaiola, aitortu zuen ez zela arazorik izanen Nafarroako Aurrezki Kutxaren jarduerari buruzko informazioa jasotzeko, baldin eta Gobernuak eskatzen bazion entitateari informazio hori.

Hori guztia dela eta, Gobernuko kide ohi Pejenaute jauna dimisioa aurkeztera eraman zuen jarduerari dagokionez, zehazki diruaren jatorriari buruz ari garela, parlamentari honek honako galderen erantzuna jakin nahi du:

• Nori saldu zion pisua Pejenaute jaunak?

• Hitz egin al zuen Nafarroako Aurrezki Kutxak edo Ogasunak eroslearekin, segurtatzeko diru hori pisuaren salmentatik zetorrela?

• Egiaztatu al zuen Nafarroako Aurrezki Kutxak, edo gero Ogasunak, diruaren jatorria legezkoa zela?

• Ba al dago ikerketa horien egiaztagiririk?

• Nafarroako Gobernuko lehendakariak adierazi zuen Espainiako Bankuak, SEPBLAC delakoaren bitartez, ez zuela arrazoirik aurkitu Pejenaute jaunari zehapenik ezartzeko. Txosten hori bidaltzeko eskatzen dugu.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Galdera, Nafarroako Kutxako Kontrolerako Batzordeak eta Auditoria Batzordeak Pejenaute jaunaren jarduketen gainean hartutako erabakiei buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutxako Kontrolerako Batzordeak eta Auditoria Batzordeak Pejenaute jaunaren jarduketen gainean hartutako erabakiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## GALDERAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera egin dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari, idatziz erantzun diezaion:

2005eko maiatzaren 19an gaiari buruz eginiko txosten batean, Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoek ondorioztatu zuten Legebiltzar honetako parlamentariok eskubide osoa geneukala Gobernuko kideek Nafarroako Aurrezki Kutxan zeukaten jarduerari buruzko informazioa eskatzeko eta erantzunak jasotzeko.

Halaber, Gobernuko kontseilari eta eledun Sánchez de Muniáin jaunak, Osoko Bilkura batean soilik hiru egun lehenago eginiko Nafarroako Aurrezki Kutxari buruzko gaurkotasun handiko galdera bati erantzuten ari zitzaiola, aitortu zuen ez zela arazorik izanen Nafarroako Aurrezki Kutxaren jarduerari buruzko informazioa jasotzeko, baldin eta Gobernuak eskatzen bazion entitateari informazio hori.

Hori guztia dela eta, Gobernuko kide ohi Pejenaute jauna dimisioa aurkeztera eraman zuen jarduerari dagokionez, zehazki erabakiak hartzerakoan zeukan eginkizunari buruz ari garela, parlamentari honek honako galderen erantzuna jakin nahi du:

• Zein erabaki hartu zituzten Kontrol Batzordeak nahiz Auditoria Batzordeak?

• Zein urrats egin ziren?

• Espediente honetan esku hartu zuten Diruzuriketaren Prebentziorako Nafarroako Kutxako Unitateko zenbat kideri kendu zizkieten beren karguak?

• Barcina andreak sinatu al zuen, Kontrol Batzordeko lehendakari gisa, Pejenaute jaunari espedienterik ez irekitzeko amaierako erabakia?

• Pejenaute kasuaren antzeko zenbat txosten eskatu behar izan dizkio Nafarroako Aurrezki Kutxak SEPBLAC-i?

• Zenbat zehapen espediente izapidetu dira?

• Zein jardute-protokolo jarraitzen du Nafarroako Aurrezki Kutxak dirua zuritzeko susmoaren aurrean?

• Zein dira Foru Ogasunaren gomendioak?

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Galdera, Nafarroako Kutxak Pejenaute jaunari buruz hartutako erabakien gainekoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutxak Pejenaute jaunari buruz hartutako erabakien gainekoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**GALDERAREN TESTUA**

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera egin dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari, idatziz erantzun diezaion:

2005eko maiatzaren 19an gaiari buruz eginiko txosten batean, Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoek ondorioztatu zuten Legebiltzar honetako parlamentariok eskubide osoa geneukala Gobernuko kideek Nafarroako Aurrezki Kutxan zeukaten jarduerari buruzko informazioa eskatzeko eta erantzunak jasotzeko.

Halaber, Gobernuko kontseilari eta eledun Sánchez de Muniáin jaunak, Osoko Bilkura batean soilik hiru egun lehenago eginiko Nafarroako Aurrezki Kutxari buruzko gaurkotasun handiko galdera bati erantzuten ari zitzaiola, aitortu zuen ez zela arazorik izanen Nafarroako Aurrezki Kutxaren jarduerari buruzko informazioa jasotzeko, baldin eta Gobernuak eskatzen bazion entitateari informazio hori.

Hori guztia dela eta, Gobernuko kide ohi Pejenaute jauna dimisioa aurkeztera eraman zuen jarduerari dagokionez, zehazki Pejenaute jaunaren maila-igoerari buruz ari garela, parlamentari honek honako galderen erantzuna jakin nahi du:

• Hartu al zuen Nafarroako Aurrezki Kutxak erabakiren bat Pejenaute jaunari buruz?

• Zenbat denbora iragan zen Auditoria Batzordearen erabakitik Pejenaute jaunaren aurre-erretirora arte?

• Zenbat kobratu zuen Pejenaute jaunak bere aurre-erretiroarengatik?

• Zergatik kontratatu zen berriz ere Pejenaute jauna Viálogosen negozio-zuzendari gisa?

• Zenbat kobratu zuen Pejenaute jaunak Nafarroako Aurrezki Kutxaren menpeko kontsulta-etxe horretan zuen eginkizunarengatik?

• Abestu al zenuen zuk kontratazio hori?

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko, UPNko eta Nafarroako Kutxako nork zuen Pejenaute jaunaren jarduketen berri.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko, UPNko eta Nafarroako Kutxako nork zuen Pejenaute jaunaren jarduketen berri.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## GALDERAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera egin dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari, idatziz erantzun diezaion:

2005eko maiatzaren 19an gaiari buruz eginiko txosten batean, Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoek ondorioztatu zuten Legebiltzar honetako parlamentariok eskubide osoa geneukala Gobernuko kideek Nafarroako Aurrezki Kutxan zeukaten jarduerari buruzko informazioa eskatzeko eta erantzunak jasotzeko.

Halaber, Gobernuko kontseilari eta eledun Sánchez de Muniáin jaunak, Osoko Bilkura batean soilik hiru egun lehenago eginiko Nafarroako Aurrezki Kutxari buruzko gaurkotasun handiko galdera bati erantzuten ari zitzaiola, aitortu zuen ez zela arazorik izanen Nafarroako Aurrezki Kutxaren jarduerari buruzko informazioa jasotzeko, baldin eta Gobernuak eskatzen bazion entitateari informazio hori.

Hori guztia dela eta, Gobernuko kide ohi Pejenaute jauna dimisioa aurkeztera eraman zuen jarduerari dagokionez, zehazki gai horren berri jende askok izateari buruz ari garela, parlamentari honek honako galderen erantzuna jakin nahi du:

• Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahaleginak egin ditu kasu honi garrantzia kentzeko, esanez “jende askok bazekiela”. Zehazki, nor zegoen jakinaren gainean Gobernuaren barruan, zure alderdian edo Nafarroako Aurrezki Kutxan?

• Zergatik ez zituen inork gertakari horiek salatu?

• Ba al dago zurekin nahiz zure Gobernuko kideren batekin lotutako beste eskandalurik, “jende askok badakiena” baina oraindik ere argitara atera ez dena?

• Hausnartu al du lehendakari andreak kasu honetan estaltze-konplizea izan ote daitekeen, baldin eta epaileren batek auzi hau ikertzea erabakitzen badu?

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer iritzi duen diru beltza zuritzeari eta Pejenaute jaunarekin zerikusia duten beste zenbait gairi buruz.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakariak zer iritzi duen diru beltza zuritzeari eta Pejenaute jaunarekin zerikusia duten beste zenbait gairi buruz.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## GALDERAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera egin dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari, idatziz erantzun diezaion:

2005eko maiatzaren 19an gaiari buruz eginiko txosten batean, Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoek ondorioztatu zuten Legebiltzar honetako parlamentariok eskubide osoa geneukala Gobernuko kideek Nafarroako Aurrezki Kutxan zeukaten jarduerari buruzko informazioa eskatzeko eta erantzunak jasotzeko.

Halaber, Gobernuko kontseilari eta eledun Sánchez de Muniáin jaunak, Osoko Bilkura batean soilik hiru egun lehenago eginiko Nafarroako Aurrezki Kutxari buruzko gaurkotasun handiko galdera bati erantzuten ari zitzaiola, aitortu zuen ez zela arazorik izanen Nafarroako Aurrezki Kutxaren jarduerari buruzko informazioa jasotzeko, baldin eta Gobernuak eskatzen bazion entitateari informazio hori.

Hori guztia dela eta, Gobernuko kide ohi Pejenaute jauna dimisioa aurkeztera eraman zuen jarduerari dagokionez, zehazki dimisio horri buruz ari garela, parlamentari honek honako galderen erantzuna jakin nahi du:

• Zer iruditzen zaizu norbaitek 180.000 euro diru beltz garbitu nahi izatea?

• Zergatik iruditzen zaizu Pejenaute jaunak behar bezalako gaikuntza zuela Gizarte Politiketako kontseilaria izateko?

• Zergatik ez zinen atera Pejenaute jauna defendatzera Kontuz-ek gizarteari gertatutakoaren berri eman zionean?

• Ustezko pertsona ustel bat izendatu izatearen erantzukizun politikoa hartuko al zenuke, Kontuzen aurka zuk babestu zenuen kereila izapidetzera onartuko ez balitz?

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

# Galdera, jakiteko zenbat diru bideratu duten nafarrek % 0,7aren laukitxora 2012ko errenta aitorpenean, 2011ko ekitaldiari buruzkoan.

*BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zenbat diru bideratu duten nafarrek % 0,7aren laukitxora 2012ko errenta aitorpenean, 2011ko ekitaldiari buruzkoan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko organo eskudunari, idatziz erantzun diezazkion:

• 2011ko ekitaldi ekonomikoari buruzko 2012ko errenta-aitorpenean, zein da nafarrek % 0,7ko laukien bidez egin duten ekarpenaren zenbatekoa?

• Zein da lauki bakoitzari (eliza, gizarte-intereseko beste xede batzuk eta biak batera) esleitutako zenbatekoa?

• Zein dira zergadunen guztizko kopurua, elizaren laukia markatu duten zergadunen kopurua, “gizarte intereseko beste xede batzuk” laukia markatu duten zergadunen kopurua eta bi laukiak batera markatu dituzten zergadunen kopurua?

• Bi laukiak markatuz gero, zergatik da horren aplikazioa desberdina Nafarroan eta Estatuan?

• Zenbatekoaren datuen banaketa, Nafarroako Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legean agertzen diren multzoen arabera, nolakoa da, xehakaturik?

• Zenbat programa finantzatu dira guztira eta zenbat programa finantzatu dira multzo bakoitzeko? Zenbat dira onuradunak?

Iruñean, 2012ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

# Galdera, kreditu-kontusail zabalgarrien erabilerari buruzkoa.

*AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, kreditu-kontusail zabalgarrien erabilerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jacak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari.

2012ko hirugarren hiruhilekoari dagokion kreditu zabalgarriko partiden erabilerari buruzkoan ondokoa agertzen da.

30-ago-124 R 341/2012
En educación 1.100.000,00

| | |
|---|---|
| 400000-41000-1600-322000 Seguridad Social | 400000-41000-1200-322000 Retribuciones del personal fijo |

Galdera:

Hau jakinik eta diru kopuruaren handia ezagututa, jakin nahiko genuke nola gertatu den aurreikuspen alde hau eta zerk eragina izan den zehazki.

Iruñean, 2012ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola

# Galdera, jakiteko zenbat diru bideratu duten nafarrek % 0,7aren laukitxora 2012ko errenta aitorpenean, 2011ko ekitaldiari buruzkoan.

*TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zenbat diru bideratu duten nafarrek % 0,7aren laukitxora 2012ko errenta aitorpenean, 2011ko ekitaldiari buruzkoan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverríak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauei idatziz erantzuteko eskatzen du:

1. 2011ko ekitaldi ekonomikoari buruzko 2012ko errenta-aitorpenean, zein da nafarrek % 0,7ko laukien bidez egin duten ekarpenaren zenbatekoa? Jakin nahi dugu Elizari, gizarte-intereseko beste xede batzuetarako eta bietarako guztira zenbat diru eman den, bai eta lauki bakoitza zenbat zergadunek markatu duten eta zergadun horien portzentajeak ere.

2. Zergatik jokatzen da desberdin Nafarroan eta Estatuan, bi laukiak markatzen direnean?

3. Zein da tributuen 100eko 0,7a nola bideratu arautzen duen 7/2009 Foru Legean ageri diren multzoen araberako banaketaren datuen xehakapena?

4. Zenbat programa finantzatu dira? Jakin nahi dugu multzo bakoitzean zenbat programa finantzatu diren eta aipatutako legea onetsi zenetik zenbat onuradunek hartu duten finantzaketa hori.

Iruñean, 2012ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

## Galdera, Moderna Fundazioari funts publikoak emateari buruzkoa.

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Moderna Fundazioari funts publikoak emateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Moderna Fundazioari buruzko ondoko galdera aurkezten du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzun dezan:

PES-123 parlamentu-ekimenari urriaren 8an emandako erantzunean, haren edukiari buruzko informazio partziala eman zenidan.

Hori dela eta, honako galderak egin nahi ditut:

1. Nafarroako Gobernuaren ekarpenaren portzentajea, fundazioak 2012ko ekitaldian izan zuen aurrekontuari dagokionez.

2. Moderna Fundazioko zuzendari nagusiaren eta zuzendariordearen soldaten zein portzentaje ordaindu den funts publikoekin.

3. Emandako erantzunean, 2012rako dirulaguntza publikoaren kopuru bat ematen da –796.588 euro–. Kopuru hori xehakatzeko eskatzen da, transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien kontzeptuak bereiziz.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

---

## Galdera, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak bere sorreratik eginiko bilera eta jarduerei buruzkoa.

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak bere sorreratik eginiko bilera eta jarduerei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari buruzko ondoko galdera aurkezten du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzun dezan:

2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuak, Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiaren kontusailen artean, honakoa jasotzen du: “Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik sindikatuei, gizarte ekonomiako elkarteei eta enpresaburuen elkarteei egin beharreko ordainketa”: 116.205 euro.

Hori dela eta, honako galderak egin nahi ditut:

1. Gaur arte egindako bileren kopurua, urtez urte xehakatuak, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua sortu zenetik, eta bilera horien zergatia.

2. Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak garaturiko jardueren zerrenda, kontzeptuen eta urteen arabera sailkatua, martxoaren 9ko 2/2006 Foru Legeko 7. artikuluko 1.a, 1.b, 1.c, 1.d, 1.e eta 1.f. idatz-zatietan ezarritakoaren arabera.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950